

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Zuzena ukatzen.
Okerman.
Autoekoizpena.
Iraupena: 30'06".

Antiheroiaren noise, post-hardcore eta rockaren antidotoa

OKER IBILIKO ginateke Iruñea aldeko talde honen existentziak harritu gaituela onartuko ez bagenu. Taldearen ize-nak eta berorrek luzatzen duen mezu apal, baina aldi berean probokatzaile eta nihilistak deitu du gehien gure arre-ta. Okerman antiheroia da, gauza asko kolokan jarri nahi dituen eta egunerokotasunean oinarritutako hitz azidoek hala erakusten dute. Musikari dagokio-nez, hanka bat post-hardcorean dutela

esango genuke: tarteka Dut gogora ekartzen digu eta giro batzuetan Lisabö-rekin ustezko ahaidetasuna antzeman daiteke; hala ere, Anariren intentsitatea zein Kuraiaren rock garrak ere ateratzeko gai dira. Euskaraz abesten dute, eta salbuespen bakarra da AHTren proiektuari gaztelaraz idatzi dioten garrasia. A, Zea Mayseko Aiorak eta Inoren Ero Ni taldeko Okenek ere esku hartu dute.

Okerman

«Dudaren militanteak gara, ez dugu uste zuzentasun objektiborik existitzen denik»

“Demokrazia jasangarria”. Gustatu zait esamoldea...

Bizi dugun gizarte-ekonomia eredia ez da jasangarria, oihaneko lege zaharra —ahula hil dadila, indartsuena bizi— kutsu sozialdun mozo-roz saltzen da. Ahula babestea, eta era berean gizabanakoen arteko konpetentzia, ezinezko oreka bihurtzen dira. Sozialdemokrazia saltzen da orekaren sustatzaile.

“Ez dauka grazia, baina bai farmazia”. Antiheroiak asko drogatzen dira?

Antiheroiak biziki sentiberak dira, eta gaur egun sentiberatasun emozionala ahuleziatzen har daiteke konpetentzia basatiak zuzentzen duenean. Sentiberatasun hori zikiratu ezean, ingurua goxatzea besterik ez da geratzen, bakoitzak ahal duen moduan...

Zuzena existitzen al da?

Guk gure burua “duda”-ren militantez dugun partetik, ez dugu uste zuzentasun objektiborik existitzen denik. Autoerrebisio etengabe batera bultzatzen zaitu.

Zergatik desertuko irudiak? Han ezer ez da perfektua/zuzena?

ko bakarrizketan aurki zenezake zarenaren funtsa. Ezin beti bakarrik egon, baina noizean behin osasuntsua izan daiteke.

Okerman “ez da inoren zain” egon, lan hau grabatu eta kaleratzeko? Anti-todo-a da?

Anti-todo-a baino, guretzat antidotoa da (kar, kar, kar); gure barne korapiloen lasaitzea eta gure desioen egiaztatzea. Gustatzen ez zaizkigun makina bat gauza egiten baditugu, gustatzen zaigunari intentzio berezia jarri beharko zaio, ez? **Kantu gehienek malenkonia kutsua daukate. Triste da Okerman?**

Batzuetan bai, baina ez beti. Energia handiko tipoa da, zer ez duen nahi badakiena,

eta nahi duena etengabe bilatzen duena. Nahiz eta horrek etsipen handia ekarri batzuetan, une gozoek distira berezia dute kostakoak eta sentituak direnean. ■



Egunerokoan mila bionboren atzean bizi gara. Desertuan bakarrik zaude, eta bakarrik zaudenean ez dago ez aitzakiarik, ez gezurren beharrik. Zu eta zure buruaren arte-